

**ERABAKIA, 2017ko martxoaren 21ekoa Euskal Herriko Unibertsitateko Gerentearena, Horren bidez, HIZKUNTZA ETA SISTEMA INFORMATIKOAK SAILA Ikastetxe edo Zerbitzurako F 722 Saileko idazkaria lanpostua aldi batez eta zerbitzu betekizunetan betetzeko deialdia ebatzi da.**

## GERTAKARIAK

**Lehenengoa.**- Euskal Herriko Unibertsitateko Gerentearen 2017ko otsailaren 8ko erabakiaren bidez deialdia argitaratu zen.

**Bigarrena.**-Gerentearen erabakiaren bidez, 2017ko martxoaren 9koa, aipatutako deialdian onartutako lehiakideen behin betiko zerrenda argitaratu zen.

**Hirugarrena.**- Gerentzia honek deialdi honetan onartutako izangaiek adierazi eta egiaztatu dituzten merezimenduak baloratzeari ekin dio.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

**Lehenengoa.**- Honako arau hauek dira aplikagarri:

- Urriaren 1eko Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legea (2015eko urriaren 2an EAOn argitaratua).

- Euskal Herriko Unibertsitateko langileen lan-baldintzak arautzeko akordioa (1996ko urriaren 23ko erabakia, 1996ko azaroaren 12ko EHAAn argitaratua).

- Euskal Herriko Unibertsitateko administrazio eta zerbitzuetako funtzionarioentzako zerbitzu betekizunak esleitzeko prozedura haztatua ezartzeko AZP Funtzionarioen Plangintza Batzordeak 2014ko uztailaren 1ean hartutako akordioa. Akordio hau Gobernu Kontseiluak 2014ko uztailaren 10eko erabakiaren bidez berretsi zuen. (2014ko abuztuko 27ko EHAAn).

- Deialdia egiteko UPV/EHUko gerentearen erabakia eta horrekin bat datorren gainerako araudi aplikagarri orokorra.

**Bigarrena.**- Gerentzia honek eskumena du erabaki hau emateko; izan ere, gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu-arloak zehazteko eta eskumenen eskuordetzeko dena hartutako 2017ko urtarrilaren 25eko errektorearen erabakiaren bidez (2017ko otsailaren 3ko EHAAn), eskuordetu zaio horretarako eskumena.

**Hirugarrena.**- Deialdiko lanpostua zerbitzu-betekizunen bidez hornitzeko prozedura Euskal Herriko Unibertsitateko administrazio eta zerbitzuetako pertsonala funtzionarioentzako zerbitzu betekizunak esleitzeko prozedura haztatua ezartzeko AZP Funtzionarioen Plangintza Batzordeak 2014ko uztailaren 1ean hartutako akordioa izango da. Akordio hau Gobernu Kontseiluak 2014ko uztailaren 10eko erabakiaren bidez berretsi zuen. (2014ko abuztuko 27ko EHAAn).

**Laugarrena.**- Aipatutako prozedurak ezartzen du hautatua izango dela merezimenduak baloratzeko zehaztutako baremazioaren arabera puntu gehien lortzen dituen izangaia eta, betiere, laugarren artikuluan adierazitako hurrenkerari jarraituko zaio hautaketa egiterakoan. Hautatutako pertsona adierazitako epean hasiko da zerbitzu betekizunen xede den lanpostuan edo eginkizunetan.

Horregatik guztiagatik, eman zaizkion eskumenak erabiliz, honako hau,

## ERABAKI DU

**Lehenengoa:** Deialdi honetako lanpostua zerbitzu betekizunetan aldi baterako esleitzea, hautatutako funtzionarioari, erabaki honetako I. eranskinean jasota dauden baldintzetan.

**Bigarrena.**- Esleipena 2017ko martxoaren 22ko ondorio dataz egitea. Esleipen hori indarrean egongo da 2014ko uztailaren 1eko erabakiaren 9. artikuluan adierazitakoaren arabera.

**Hirugarrena.-** Erabaki hau eta dagozkion eranskinak argitaratzea UPV/EHUren webgunean Administrazio eta zerbitzuetao langileak. Hautaketa eta hornikuntza. Barne-deialdiak.

**Laugarrena.-** Erabaki hau jakinaraztea interesdunari, dagozkien Zerbitzuko Buruei edo Administrazioaleei, eta nomenen atalari. Har beza kontuan AZPren atalak.

**Bosgarrena.-** Erabaki honek administrazio-bidea agortzen du eta honen kontra aukerako berraztertzeo errekurtsua jar dakioko gerentzia honi, hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsua jarri ahal izango da administrazioarekiko auzietarako epaitegietan bi hilabeteko epean. Epe horiek erabakia lehen adierazitako moduan argitaratu eta hurrengo egunetik hasiko dira kontatzen.

Leioan, 2017ko martxoaren 21ean

Errektorearen eskumenak eskuordetuta: 2017ko urtarrilaren 25eko erabakia (2017ko otsailaren 3ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

UPV/EHUko GERENTEA

Miren Lorea Bilbao Artech





## **I. ERANSKINA ZERBITZU BETEKIZUNA**

**2017/02/8**

**Esleipenduna:** FERNANDINO HURTADO, MARIA ISABEL  
**Ordezko esleipenduna:** NEIRA GARCIA, MARIA TERESA  
**Lanpostuaren** Saileko idazkaria  
**Izena:** Arautua  
**Lanaldia:** F 722  
**Eref.: Zenbatgarrena:** 68  
**Maila:** 18  
**Taldea:** C/D  
**Eskala:** Administraria/Administrari laguntzailea  
**H.E.:** 2; 1994ko urtarrilaren 31  
**Langunea:** HIZKUNTZA ETA SISTEMA INFORMATIKOAK SAILA  
**Campus:** GIPUZKOA  
**BE:**  
**Ondorio data:** 2017ko martxoaren 22a